



Ajangizko Udala

MAIER-MENDIETA LANBIDEA EGOKITZEKO LANAK (III. FASEA).-

2010eko urtarrilaren 18an, eguerdiko 13:30tan Ajangizko Udaletxeko batzar gelan bilduta:

- Koldo Carbonell Oihartzabal jauna, Alkatea
- Saioa Pineda Aranburu, Idazkaria

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2009ko abenduaren 19an ospatutako batzarrean, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko III. Faseko lanak esleitzeko espedientea, administrazio baldintzen plegua eta baldintza teknikoen plegua onartu zituen, 200.796,41 euroko gastuarekin.

Kontratuaren prezioa kontutan hartuta, jendaurredun prozedura negoziatua aplikatu da esleipenerako, eta horren arabera lizitazio iragarkia udaletxeko web orriko kontatazio profileen argitaratu zen.

Prozeduran parte hartzeko aurkeztu ziren enpresak ikusita, honako hauei egin zitzaizen proposamenak aurkezteko gonbidapena:

- Construcciones Areza S.L.
- Construcciones Intxausti S.A.
- Aragón Alquiler de maquinaria S.A.
- INCONOR S.L.

Eskaintako epean hiru enpresa hauek aurkeztu dituzte beraien proposamenak:

- Construcciones Areza S.L.
- Construcciones Intxausti S.A.
- Aragón Alquiler de maquinaria S.A.

Prozedurari jarraituz, Idazkariak partaideek aurkeztutako A sobreak irekitzeari ekiten dio eta bertako edukina aztertzen da prozedura arautzen duen administrazio baldintzen pleguko 16. artikulua jasotakoa kontutan hartuta.

Jendaurreko ekitaldira Construcciones Intxausti S.A. enpresako ordezkari bat etorri da.

Jasotako dokumentazioa kontutan hartuta, dokumentazio hau udal teknikarien esku usten da dagozkion txostena egin dezaten. Hurrengo jendaurreko ekitaldia, datorren urtarrilaren 19an eguerdiko 13.30etan ospatzea onartzen da, jasotako dokumentazioaren balorazioaren berri eman eta proposamen ekonomikoak jasotzen dituzten B sobreak zabaltzeko.